

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Belateko eta Almandozko tunelak zabalduko dira azaroaren 1ean

Egun horretan bertan amaituko dira tunelen itxierarekin lotutako neurriak: N-121-A errepidean trafiko astunaren zirkulazio-murrizketa eta AP-15 autopistan (Iruñea-Irurtzun zatian) Sarasako bidesariaren doakotasuna

Asteazkena, 2018.eko urriak 17

Azaroaren 1ean, osteguna, Belateko eta Almandozko tunelak zabalduko dira, sare transeuropearrean 500 metrotik gorako tunel guztiek bete behar duten Europako segurtasun-araudira egokitzeko tunel barruko obrak amaitu ostean.

Horrela azaldu du Belateko eta Almandozko Tunelen Lanetarako Jarraipen-Batzordeak, asteazken honetan, arratsaldean egindako bileran. Manu Ayerdi Garapen Ekonomikorako lehendakariordea izan da bileraburua.



Belateko Lan Batzordearen bilera, Manu Ayerdi-k burupean.

Aurreko bileraren akta onartu eta gero, egoeraren txostena aurkeztu dute, bi tuneletan burutu diren lanen xehetasunekin: likido toxikoak eta sukoiak ebakutzeko drainatze-sistema bana ezarri dira; bide-zoruaren drainatzea zabaldu eta birjartzea; bide-zoru berria fresatzea eta birjartzea (MBC) eta seinaleak; aireztatze, argizatze iraunkor eta gida-zirkuituetarako suaren kontrako kable-sare berria jartzea. Belateko tunelean, bestalde, 40 metro luzerako eta 3 metro zabalerako bi bazterbideak amaituta daude, hego tunel-ahoaren 360 eta 400 metrora hurrenez hurren.

Bai Almandozko tunelean bai Belatekoan isuriak jasotzeko bi kutxatila eta sareta jarri dituzte.

Nafarroako Gobernuak 3,92 milioi euroko inbertsioa egin du egokitze-lan hauek aurrera eramateko.

Construcciones Mariezcurrena enpresak ekainaren 4an hasi zituen obrak. Orduan itxi zituzten tunelak, eta, obrarekin amaitzeko, tunelen barruko mantentze-lanak soilik geratzen dira egiteko.

Mantentze-lanak

Gaur egun, Bide Segurtasuneko Atalak eta Belate eta Almandoz tuneletako Kontrol Zentroak egiten dituzte tuneletako mantentze-lanak, eta,

horretarako, ezinbestekoa da trafikoa moztea. Batetik, komunikazio-sarea berriro konfiguratzea tunelek Iruñearekin duten irrati bidezko komunikazioaren ordeztuntz optikoko konexioa jartzeko. Baita telebista-zirkuitu itxiko (CCTV) kamerak garbitzea, doitzea eta ainguratzea ere. Eta, bestetik, tunelen barruan eta tunel-ahoetan unean uneko mezuak emateko pantailetan matxurak berrikustea eta konpontzea. Horietaz gain, larrialdietako argiak birjarri eta berriz konfiguratzea, SOS zutoinen armairuak eta suteetako ur-harguneak lixatzea eta margotzea, eta suteak detektatzeko eta itzaltzeko sistemak ikuskatzea izan dira amaitzeaz dauden lan nagusiak.

Era berean, tuneletako segurtasun-sistemen kudeaketa informatikoko aplikazioak ordeztuko lanak egiten ari dira.

Murrizketarik gabe

Ayerdi lehendakariordeak azaldu duenez, azaroaren 1ean kenduko dituzte ekainaren 4tik indarrean dauden trafiko-murrizketak. Hain zuzen, N-121-A, NA-1210 eta N-121-B errepideetan lau ardatz edo gehiagoko merkantzia-ibilgailuen trafikoari soilik eragiten diotenak, eta bizikleten zirkulazioa zein kirol-ekitaldiak NA-1210 errepidean debekatzen dituztenak ere. Bestalde, AP-15-ean, Sarasan (Iruñea-Irurtzun tartean), ibilgailu astunentzako doako bidesaria amaituko da.

Poliziaren presentziaren areagotzea

N-121-A eta NA-1210 errepideetan (Belateko gaineko errepidea) zaintzari eta jarduerari dagokionean, Guardia Zibileko Trafikoko Taldeak egindako lanaz gain, Foruzaingoak prebentzio lan intentsiboak egin ditu. Guztira 285 zerbitzu eman ditu, intzidentziei erantzun eta bide-segurtasuneko arauak eta murrizketak betetzen direla bermatzeko. Plan horretan Bide Segurtasuneko 650 patruilek parte hartu dute Nafarroako 1.300 polizia-agenterekin batera. Haez gain, ekainean eta uztailean 25 agentek baino gehiagok helikoptero bidezko zerbitzua eman dute.

Belateko gaineko tartean (NA-1210), Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak maiatzean egokitze-lanak egin zituen tunelak itxi aurretik. Bertan 16 istripu gertatu dira. Haietatik hamabostek kalte materialak eragin dituzte eta batean zauri-arineko pertsona bat izan da. Istripuen erdiak ekainean gertatu dira, gehienak eskuineko irteeretan, 9,8 P.K-n edo inguruetan, behearanzko zentzuan (Iruñeko noranzkoan, igoeran). Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak toki horretan jardun eta arazoa konpondu zuen.

Halaber, N-121-A, N-121-B eta NA-1210 errepideetako (Belateko gaineko errepidea) hainbat puntutan ibilgailu-kontrolak egin dira, 512 guztira. Murrizketak dituzten bide hauetan 2.486 salaketa egin dira guztira, %78 radar bidez, N-121-A errepidean. Aipatu behar da Foruzaingoaren prebentzio kanpaina osoan kontrolak egin direla eta ibilgailuak matrikula bikoitien edo bakoitien arabera multzokatu direla. Bisualki zenbatu diren 15.306 ibilgailuetatik %26,27k, hots, 3.903 ibilgailuk, ez zuten murrizketa bete. 183 salaketa jarri ziren.

Belate eta Almandozko Tuneletako Lanen Jarraipen-Batzordearen azkeneko bilera honetan ere Nafarroako Gobernuaren Herri Lanen Zuzendari Nagusia, Foru Erkidegoko Poliziaren Trafiko Ataleko komisario burua, Ospitale Kanpoko Larrialdietako Zerbitzu burua, Nafarroako Suhiltzaileen zerbitzuko zuzendaria, Herri Babes Zerbitzuko Zuzendaria, ANET eta TRADISNA garraio-elkarteak, Baztan-Bidasoa Garraio enpresen ordezkaria, Nafarroako Zerbitzu Estazioen Enpresari Elkarteak, Baztan-Bidasoa Turismoa (lurraldeko turismo eta ostalaritza sektorearen izenean), Baztan, Bera, Ezkabarte, Lesaka, Doneztebe, Sunbillako Udalak eta N-121-A errepide inguruko herrien ordezkaria egon dira.

Udal ezberdinetako ordezkari batzuek Ayerdi lehendakariordeari N-121-A errepidearen etorkizunaren inguruko eztabaida-leku bat eratzeke aukera azaldu diote. Gaurkoan, Tuneletako Lanen



Belateko tunelaren barrualdea, lanetan egin diren bazterbideetako bat agerian.

Jarraipen-Batzordearen lana amaitu dela esan eta gero, Ayerdik galdekizun hauei erantzun die eztabaida legezkoa dela nabarmenduz eta gai honek izan ditzazkeen inplikazio guztiak era sakonean aztertzeko denbora nahikoa beharrezkoa dela argudiatuz.

N-121-A errepidea sare transeuropearraren parte bezala aintzat hartu dezatela lanean hari dela Nafarroako Gobernuak oroitarazi du Ayerdik ere. Eta, Ezkabatik Endarlatsa bitartean, 2+1 errepide ereduaren eraikitze proiektuen erredakzio esleipenekin zein ebakuazio sistemak burutzeko Belate eta Almandozen sondeo-geologikoen kontratazioarekin hartutako erabakiak, filosofia horren inguruan hartu dituztela ere.

Azkenik, Belate eta Almandozko tunelen irekiera eguna hurbil dagoela jakinik, N-121-A bezalako errepide konplexuan arreta ez galtzearen garrantzia gogoratu du Foruzaigoak.

Galería de fotos



Belateko tunelaren ipar sarrerako irudia, seinaleztapen bertikal berriarekin.



Isuriak biltzeko kutxatila eta sareta, bi tuneletan egindako lana.